

Birsortzeko aroa

kasturte berri horren hasieran, jarraian agertutako bi gertakari berdintsuk piztu dute nere atentzioa: bata urriko lehen igandean Lapurtarren Biltzarra ez dela ospatuko aurten, eta bestea, EHZren “hil ala biziko” bilkura. Uda osoan ezagunekin izandako solas etsitu, erre eta galduekin oihartzuna egin dute albiste horiek. Gorabeherak ez dira berriak herri mugimenduetan. Mundu zabalean behatzen diren prozesu berdinak gertatzen dira Euskal Herrian; erlatibizatu dezagun afera.

EHZ festibalaren inguruan asko idatzi da. Afekzio sobera dut horren inguruko gogoetak partekatzen. Sinple egiteko, errango nuke bi funtzio bete izan dituela azken 20 urteetan: bata barnera begira, bestea kanpora. Bi funtzio horiek, oraindik beharrezkoak direla errango nuke.

Kanpoari begira, gibelatasuna hartuz, aitor dezagun, azken bi hamarkadatan kultur paisaia asko aldatu dela. Subertsiboa zena (euskaraz kantatzea edo rock kontzertu bat antolatzea) arrunta bilakatu da. Batzuek diote ez dela baitzupada seinale txarra EHZ desagertzen bada. Normalizazio baten ondorioa edo. Ez naiz ados. Merkatuak irentsitako kultur eskaintza aseptikoaren ondian, bada alternatiba erradikalaren beharra.



Eneko Gorri

EUSKARA TEKNIKARIA

Ez gaitzen erreproduktzioa mugatu, ez eta aldaketaño kosmetikoekin konformatu. Utz diezaiozun gazteriari espresio modu urratzaile berriak bilatzen

Aitzineko belaunaldiak sortu dituzten tresnak kudeatzera ez dira mugatu behar gaurko ekintzaileak. Sortu, asmatu, esperimentatu, menturatu. Lagun batek dioen moduan, “indio gehiago eta jefe gutxiago” behar ditu gure herriak; “kudeatzaile gutxiago eta

sortzaile gehiago” gehituko nuke. Ez gaitzen erreproduktzioa mugatu, ez eta aldaketaño kosmetikoekin konformatu. Utz diezaiozun gazteriari espresio modu urratzaile berriak bilatzen. Jendea asaldatu, inarrosi eta kontzientziatuko dituen gertakaria. Aitzinekoek transmititu dieguna izorratzeko eta porrot egiteko eskubide osoa dutela onar dezagun.

Barnera begira, EHZ desagertzen bada, non partekatuko dute lan txanda bat Euskal Herria aldatu nahi duten horizonte desberdinetako militanteek? XXI. mende horretan, non topatuko dira Garaziko Gaztetxeke gaztea, Ernai mugimenduko militantea, Amankomunak sareko autonomia, Hazparneko emazte feminista, Iruñeko euskaltzalea, Itsasuko kabalkadako antzerkilaria, Bermeko sortzailea, Baionako antifaxista, Errekaleorreko bizilaguna, EH Baiko hautetsia eta Mauleko ekintzaile ekologista? Zein da haien espazio partekatua?

Nostalgikoa izateko hamaika arrazoi ditugu, bere historian herri hori gauza erraldoiak egiteko gai izan delako. Baitorrak izateko zergatiak ere baditugu, etorkizunean ere dabilen harria garen goroldiorik ez baita agertuko gure jendartearen gainean. Gora bihotzak! ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

 